

**2025/2026 DONOSTIAKO GABONETAKO AZOKAREN FUNTZIONAMENDUA
ETA BERAU LEKUTZEN DEN EREMUETAN SALMENTA JARDUEREN
BAIMENAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRIAK**

AURKIBIDEA

1. XEDEA	3. or.
2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK, SALMENTA-PRODUKTUAK ESPAZIO MOTAK ETA KOKALEKUA	3.or.
3. ALOKAIRURAKO ETA USTIAPENERAKO BALDINTZAK	8.or.
4. SALGAIK ERAKUSGAI IPINTZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BETEKIZUNAK	11. or.
5. ESKAERAK, EPEA ETA AURKEZPENA	12. or.
6. ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA	13. or.
7. ESKAEREN PROZEDURA ETA BALIOESPENA	14. or.
8. ERAKUSKETARIEN BETEBEHARRAK	21. or.
9. KONTRATUA ETETEA	24. or.
10. DATUEN BABESA	25. or.
11. AZKEN XEDAPENA	25. or.
12. ERANSKINAK	27. or.

1. XEDEA

Oinarri hauen helburua Donostiako Gabonetako Azokak 2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 6ra bitartean (biak barne) hartuko dituen eremu ezberdinetan ipintzeko etxolen eta foodtrucken (elikadura-ibilgailuak) esleipena arautzeko baldintzak erregulatzeko da.

Gabonetako Azokaren aldia aldatzera behartuko luketen baldintza bereziak suertatuz gero (sanitarioak, antolaketarenak, etab.), Donostia Sustapenak eskubidea izango du aipaturiko datak aldatzeko, aukeratutako erakusketariei aldeztuz aurretik abisatuta.

2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK, SALMENTA-PRODUKTUAK, ESPAZIO MOTAK ETA KOKALEKUA

2.1 Ezaugarriak:

Donostia Gabonetako erreferentziatzeko hiri modura sendotu da. Hori argi erakusten dute Gabonetako Azokara joaten diren pertsonen datuek, bai eta herritarren eta bisitarien artean sortzen duen interesak ere.

Gabonetako Azoka kanpaina berritzaile baten barruan kokatzen da, eta Gabonetako **argiztapen** pertsonalizatua, **azokak eta ikuskizunak** nabarmentzen ditu. 2024/2025 edizioan, 30.000 pertsona baino gehiago joan ziren Gabonen inauguraziora, eta ekitaldi hori erreferente bihurtu da donostiarrentzat ez ezik, bisitatzen gaituzten guztientzat ere.

Donostia Sustapenetik, 2025/2026 edizio honetan, **Berrikuntza, Kalitate, Elkartasun eta Jasangarritasun** printzipioetan oinarritutako Gabonetako Kanpaina bat lantzen jarraituko dugu.

Gabonetako Azoka da Gabonetako Kanpainaren ardatz nagusia, eta **Kalitatearen** ikuspegitik garatuko da beste urte batez.

Puntu honetan, hautaketa-prozesuak alderdi hauek nabarmenduko ditu bereziki:

- Etxolaren barne-dekorazioa (Gabonetako koloreak eta estetika, produktua antolatzeko kalitatezko euskarriak, atrezzo egokia, etab.).
- Elementu jasangarriak erabiltzea (barruko LED argiak, etxolaren barrualdea material nobleekin estaltzea, material birziklatuak erabiltzea, etab.)
- Postuan dauden pertsonen Gabonetako jantziak edo salmenta-produktuarekin bat datozen jantziak erabiltzea.

Tokiko, estatuko eta nazioarteko erakusketariei eskatu ahal izango dute etxola Gabonetako Azokan.

Donostia Sustapenak Gipuzkoan edota beste probintzi batzuetan kokatutako eta legez eraturiko GKEen, fundazioen eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuentzat gorde ditzake salmenta-postuak, eta baita hiriarentzat interesgarriak diren beste ekimen batzuentzat ere.

Halaber, estatuko eta nazioarteko elikagaien erakusketariak erakartzea sustatuko da, eta baita produktu berritzaileenak ere, txandakako etxolak egoteko.

Etxola horiekin batera beste zenbait elementu instalatuko dira, esate baterako, herritarrek eta bisitariek erabiltzeko karpak eta azoketako atrakzioak, eremu hori Gabonetako topaleku bilakatzeko xedez.

Aipaturiko erakusketariaren aldeko ebazpenak aukera ematen du Gabonetako Azokaren formatu klasikoan (fisikoa) parte hartzeko zein sarbide zuzena izateko DSS Market Plazan (<https://dssmarketplaza.eus>) edo Sustapenak erabakitzen duen beste edozein ekimenetan parte hartzeko.

Euskararen normalizazioa: Hautatutako erakusketariak Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko ezarritako arauak bete beharko dituzte. Beraz, kartel guztiak eta komunikaziorako euskarri guztiak euskaraz egon beharko dira edo, hala badagokio, euskaraz eta gaztelaniaz. Horretarako, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza izan ahalko dute, Donostia Sustapenaren bide

2.2. Salgai dauden produktuak:

Gaikako izaera horri helduz, Gabonetako Azokan Gabonetan ohikoak izaten diren Gabonetako produktuen salmentarako postuak instalatuko dira jarraian zerrendatzen diren gunen/multzo bakoitzean:

- ❖ I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak:** Gabonetako produktu tipikoak, garaikoak, gozokiak, gozotegia, gastronomia, aukerako kontserbak, fruitu lehorrak, etab.
- ❖ II. MULTZOA: **Jostailuak eta haurrentzako Gabonetako opariak:** Gabonetako jolasteko haurrentzako gaiak (jostailuak, eskulanak, liburuak eta ipuinak, etab.).
- ❖ III. MULTZOA: **Artisautzako eta Gabonetan oparitzeko gaiak:** artisautza, apainketa, brokantea, bisuteria, moda (Gabonekin lotua gehienbat: txanoak, eskularruak, etab.), zeramika, urregintza, p

Sustapenak produktuen kalitatearen gainera **jarraipen** berezia egingo du. Ekoizpen mekanizatu baten eta serie handien ondorio diren jatorri industrialeko produktuak ez dira onartuko. Beren kalitatea dela eta, Sustapenak Gabonetako Azokan merkaturatzeko modukotzat jotzen ez dituen produktuak identifikatuko balitu, erakusketariari berehala produktu horiek kentzeko jakinaraziko dio eta hori kontuan izango da parte-hartzaileak etorkizunean egiten dituen eskarietarako.

Gabonetako musika-tresna tipikoak, etab.

- ❖ IV. MULTZOA: **Gabonetako apaingarriak:** Jaiotza tradizionalarekin lotutako gaiak, irudiak eta osagarriak, Gabonetako hornidurak, argiak, girlandak, Gabonetako dekorazioa eta apaingarriak, Gabonetako loreak, etab.

2.3. Salmenta-espazio motak eta horien ezaugarriak:

Aurreko atalean adierazitako produktuak saltzeko eremuetan etxolak, elikadura-ibilgailuak edo memoria xehatu (deskribatzaile eta grafiko) bat aurkeztu duten, eta Donostiako Sustapenak onartutakoa izan dena, beste edozein elementu berritzaileak bete ahal izango dituzte espazioak.

ipini ahal izango dira.

Etxolak Donostia Sustapenak ipiniko ditu pertsona edo erakunde erakusketariekin erabil ditzaten. Eskainiko diren etxolen artean, 2 motakoak daude (txikiak eta handiak), jarraian zehazten diren ezaugarriekin:

2.3.1. Etxola txikiak:

- Neurriak: 3x2 metro (6 m²) Altuera alboetan (barnealdean) 205 cm. Altuera erdian (barnealdean) 270 cm.
- Materiala: egurra.
- Berriki eraikitako etxola aurrefabrikatuak. Horrela hornituta:
 - Aurrealdeko irekigunea, erakusmahaiarekin, eta kontraleiho baskulatzailarekin, sistema hidraulikoz eta sarrailez hornituta.
 - Atzealdean sarrailez hornitutako egur trinkodun atea, egurrezko zorua eta ocume oholdun sabai babestua.
 - Goiko erakusmahaia, ipini edo ez ipintzeko aukeraz.
 - Aurrealdeko erakusmahaia, ipini edo ez ipintzeko aukeraz.
 - Salgaiak ipintzeko hiru apal.
 - Kanpoko argiztapena.
 - Errotulu komertziala.
 - Koadro elektrikoa, 1200w-ko diferentzialaz eta hiru entxuferekin.

2.3.2. Etxola handiak:

Etxola mota hauek, beren tamaina dela medio, Urumea Plazaren barnean kokatuko dira nagusiki, eta Gabonetako Ohiko Elikagaiak izeneko I. Multzorako erabiltzea lehenetsiko da, erabilgarri dagoen kopuruan.

- Neurriak: 4x2 metro (8 m²) Altuera alboetan (barnealdean) 205 cm. Altuera erdian (barnealdean) 290 cm.
- Materiala: egurra
- Berriki eraikitako etxola aurrefabrikatuak. Horrela hornituta:
 - Aurrealdeko irekigunea, erakusmahaiarekin, eta kontraleiho baskulatzailarekin, sistema hidraulikoz eta sarrailez hornituta.

- Atzealdean sarrailez hornitutako egur trinkodun atea, egurrezko zorua eta ocume oholdun sabai babestua.
- Goiko erakusmahaia, ipini edo ez ipintzeko aukeraz.
- Aurrealdeko erakusmahaia, ipini edo ez ipintzeko aukeraz.
- Salgaiak ipintzeko sei apal.
- Kanpoko argiztapena.
- Errotulu komertziala.
- Koadro elektrikoa, 3300w-ko diferentzialaz eta hiru entxuferekin.

I. eranskinean etxolen xehetasun teknikoa atxikitzen da.

Etxola guztien **kanpoko apainketa** (errotulu identifikatzailea parte-hartzaile bakoitzaren izen komertzialarekin eta girlanda apaingarria) Donostia Sustapenari dagokio, eta hura arduratuko da baterako estetika bat aintzatetsiz etxolak modu homogeneoan jartzeaz. Erakusketariak ezin du errotulazio-elementurik jarri ez etxolen aurrealdean ez alboetan. Era berean, etxolaren inguruetan ezin izango da merkataritza-seinalerik jarri, baldin eta Donostiako Sustapenak berariaz edo idatziz baimentzen ez badu..

Barruko apainketa etxola erabiltzen duenaren esku dago. Diseinu egokia eta kalitatezkoa izan behar du, Gabonetako Azokaren irudi estetiko orokorrarekin koherentea izan behar du, eta eusteko elementu ez inbaditzaileak eta itzulgarriak izan behar ditu, etxolan kalterik eragin gabe. Material birziklatuak eta jasangarriak erabiltzea lehenetsiko da.

Azokan sare elektriko eta ur instalazioa, komun publikoak, segurtasuneko langileak eta azokako jardueren inguruan artatu eta horiek koordinatzeko langileak izango dira. Era berean, Donostia Sustapenak etxolen barruan jartzeko su-itzalgailu bat banatuko du, ausaz, etxolen artean.

Etxolen potentzia elektrikoa: Etxolek **koadro monofasikoa** dute. Haien ekipamenduarengatik koadro trifasikoa behar dutenean, Sustapenak aldaketa horrek eragingo duen **kostu gehigarriaren** berri emango dio erakusketariari, eta azken horrek ordaindu beharko du.

Elikagaiak manipulatzeko etxoletarako jarraibideak: Donostiako Udaleko Osasun Sailak Gabonetako Azokari buruz emandako osasun-jarraibideek honako arau orokor hauek ezartzen dituzte elikagaiak manipulatzeko erabiltzen diren **zurezko etxoletan**:

- Ezingo dira produktuak zerotik prestatzen hasi, ezta etxean edo catering jarduerarako berariazko baimena ez duten ostalaritza establezimenduetan prestatutako edo aurretiaz prestatutako elikagairik saldu.
- Ezinbestekoa da produktuen erregistro sanitarioa izatea (norberarena edo hornitzailearena) eta elikadura-produktuak saltzeko, merkaturatzeko edota prestatzeko ezarritako bestelako baimenak edo lizentziak izatea. Dagokien erregistro sanitarioa duten elikadura-produktuak bakarrik saldu ahal izango dira

- Elaborazio sinpleak egin ahal izango dira (esaterako: crepeak, taloak, garrapiñatuak, txokolate beroa, ogitartekoak, etab.).
- Elikagaiak ongi mantentzea bermatzeko moduan gordeko dira.
- Alergenoei eta intolerantziei buruzko informazioa jaso beharko dute.
- Beren ezaugarriengatik eta ekipamendu aldetiko premiengatik, jarduera ezinbesteko segurtasun-bermearekin garatzeko derrigorrez eskatzen diren 3x2 metroko etxolak bermatutako espazioa baino handiagoa behar duten jardueren kasuan, etxola handiagoa erabili beharko dute (4x2 metrokoak, edo 3x2 metroko 2 etxola elkartuta).
- Ezinbestekoa da eskuak garbitzeko konketak edukitzea elikagaiak manipulatzeko direnean. Osasun arloan indarrean den araudia betez, ezinbestekoa izango da elikagaiak edozelan manipulatzeko diren etxola bakoitzean **konketa** bana izatea. Konketa erakusketariak berak jarri ahal izango du, horretarako ezarritako betekizunak eta arauak beteaz, edo, erakusketariak eskatuta, Donostia Sustapenak jar dezake 272,25 euro gehiagorengatik (BEZ barne).

Donostia Sustapenak eskaintzen duen eta erakusketarien esku jar dezakeen konketak sistema eramangarria du, 10 litroko 2 bidoirekin eta eragintza bikoitzeko pedalaz hornituta.

Eskaintza araudiari jarraiki jarduera burutzeko derrigorrez ura erabili behar den kasuetarako, zen beste arrazoi baten ondorioz ura erabili beharra dagoen kasuetarako izango da.

Etxolak elkartzea: Adierazitako tamainak baino handiagoa den etxola komertzial bat erabiltzeko interesa duen erakusketariak 6x2 metroko gehieneko tamaina (3x2 metroko bi etxola elkartuta) eskatu ahal izango du.

Lotura horri esker, barne-espazio garbia lor daiteke. Aukera hau etxolaren eskaera aldi osokoa denean bakarrik eskaintzen da, eta erakusketariak 225,06 euroko kostu gehigarria ordaindu behar izango du (BEZa barne).

2.3.3 Elikadura-ibilgailuak eta beste elementu batzuk:

Gabonetako Azokan janari-furgonetek eta beste elementu batzuek erabiltzeko eremuak aurreikusten dira. Eremu horiek Urumea plaza, Ramon Labayen plaza eta Andia kalea izan daitezke. Sustapenak adieraziko du, eskaintza komertzialaren orekaren arabera, eskatzaile bakoitzak zer eremu hartu behar duen. Janari-furgonetek elikagaiak prestatzeko baimena izan beharko dute (beren Erkidegoko osasun-agintaritzen baimenak).

Edozein kasutan, elikagaien salmenta edo manipulazioarekin lotutako edozein proposamen, bai etxolatan, elikadura-ibilgailuetan nahiz beste elementu batzuetan, Donostiako Udaleko Osasun Sailak onartu

beharko du. Horretarako, Donostia Sustapenak eskatzaileek aurkeztutako dokumentazio guztia helaraziko du, eta udal sail horrek erabakitakoari egingo dio men.

Gabonetako Merkatuan eskainitako elikadura-produktuak etxola, janari-ibilgailu edo beste elementu batzuen ingurumarian edo Donostia Sustapenak ipinitako altzari laguntzailez hornitutako eremuetan kontsumitzen badira, erakusketariak arduratuko dira altzari horiek behar bezala mantendu eta garbitzeaz, eta baita leku horietan sortzen diren hondakinak bildu eta kudeatzeaz ere.

Osasun araudia ez betetzearen, edota baimenak eta bestelakoak ez izatearen ondoriozko isunak eta beste edozein erantzukizun (zuzenak zein zeharkakoak), erakusketariak hartuko ditu beregain osorik. Donostia Sustapenak ez du erantzukizunik izango zentzu honetan.

2.4. Kokapena:

Gabonetako Azoka hiriaren erdigunean barna hedatuko da. Erakusketariak Urumea pasealekuan, Santa Katalina zubiaren eta Maria Kristina zubiaren arteko tartean, Urumea plazan, Ramon Labayen plazan, Andia kalean eta inguruetan kokatuko dira.

Donostia Sustapenak Gabonetako Azoka egiteko eremuak aldatu edota areagotzeko eskubidea gordetzen du. Horrez gain, Gabonetako Azoka ospatzeko bide publikoaren okupazioarekin lotuta gerta daitezkeen ustekabeen aurrean, haren kokapena aldatu ahalko du. Edozein kasutan, hiriaren erdiguneko eremu batean lekutuko da beti, normalean bisitari asko izaten den espazioan.

4X2 metroko etxolak, nagusiki, Urumea Plazan jarriko dira, haien tamaina dela eta. Elikadura-ibilgailuak eta beste elementu batzuk Urumea plazan, Ramon Labayen plazan eta Andia kalean.

Donostia Sustapenak zehaztuko du etxolen behin betiko kokapena, Gabonetako Kanpaina hasten den eguna baino 5 egun lehenago gutxienez. Kokapena lortutako balorazioan oinarrituta egingo da, kategoria bakoitzean lortutako puntuatzeko irizpideen arabera, oinarri hauen 8. artikuluan zehaztuak, eta baita mix komertzialaren banaketa irizpideak aintzat hartuz ere, eta berdinketa egonez gero, eskaeren sarrera-ordenak aginduko du.

3. ALOKAIRURAKO ETA USTIAPENERAKO BALDINTZAK

Jarraian, erakusketari guztiek uneoro eta Gabonetako Azoka garatzen den bitartean bete beharko dituzten baldintza eta betekizun guztiak zehaztu ditugu:

3.1 Egutegia, ordutegia eta prezioak

3.1.1 Egutegia:

Etxolek, elikadura-ibilgailuek eta beste elementu batzuk irekita egon beharko dute egunero 2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 6ra arte. Ezingo dute itxi aldi horretako egun batean ere ez, Donostia

Sustapenak ez irekitzeko aukera ematen dionean izan ezik (abenduak 25ean Gabon egunez, urtarrilaren 1ean Urte Berri Egunez, eta urtarrilaren 6an Errege egunez), edo arrazoitutako kausa batengatik erakusketariari horretarako baimena eman zaionean izan ezik.

3.1.2 Orduategia:

Honakoa izango da irekitzeko ordutegia:

Astelehenetik ostegunera:

- Etxoletarako ordutegia: 11.00 eta 21.30 bitartean.
- Etxolak derrigorrez irekita izateko ordutegia: 11.30 -14.00 eta 16:30 - 20:00 bitartean.

Asteburua, jaiegunak eta jaiegun bezperak (ostiralak barne):

- Etxoletarako ordutegia: 11.00 eta 22.30 bitartean.
- Etxolak derrigorrez irekita izateko ordutegia: 11.30 -14.00 eta 16:30 - 20:30 bitartean.

Aurreko ordutegien salbuespenak:

- Gabon zahar eguna (abenduak 24), Urtezahar eguna (abenduak 31) eta Errege bezpera (abenduak 5): itxiera-ordutegia 19:00etara aurreratu ahal izango da.
- Gabon eguna (abenduak 25), Urte berri eguna (urtarrilak 1) eta Errege eguna (urtarrilak 6): Etxolak eta elikadura-ibilgailuak itxita egon daitezke, erakusketariaren erabakiaren arabera eta Donostia Sustapenari aldez aurretik eta idatziz baimena eskatu bazaio.

Halaber, eta oro har, erakusketari guztiei jakinarazi ondoren, Donostia Sustapenak eskubidea du aurreko paragrafoetan adierazitako ordutegiak aldatzeko ezinbestez bada edo aparteko arrazoi batengatik, esaterako klima fenomenoak edota sanitarioak direla eta.

Edozein erakuslek egutegia eta ordutegia behin eta berriz betetzen ez baditu, arrazoi objektibo justifikaturik gabe, etxola edo elikadura-ibilgailua ustiatzeko eskubidea gal dezake, eta, ondorioz, Gabonetako Azokan parte hartzeko eskubidea, eta Donostia Sustapenak eskubidea izango du oinarri hauen 10. artikuluan bildutako isunak aplikatzeko.

3.1.3 Prezioa:

Donostia Sustapenak, hiriaren garapen ekonomikoaren alde eta aurreko urteotan bezala, etxolaren kostuaren zati handi bat hartuko du (ikus etxola instalatzearen kostu ekonomikoak **II. eranskinean**)

Hauek dira erakusketarientzako prezioak, Donostia Sustapenaren diru-laguntza aplikatu ostean (etxola aldi osorako zein aldi erdirako alokatzeko aukera dago, eta astero soilik elikadura-ibilgailuetarako espazioen kasuan):

A) Aldi osorako prezioa (2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 6ra):

- Etxola txikia: 1.863,40 euro (BEZ barne) 1.540 € + BEZ
- Etxola handia: 2.776,95 euro (BEZ barne) 2.295 € + BEZ
- Elikadura-ibilgailuetarako espazioa: 2.776,95 euro (BEZ barne) 2.295 € + BEZ
- Eskuak garbitzeko konketa: 272,25 euro (BEZ barne) 225 € + BEZ
- 3x2 metroko etxolak elkartzea: 225,06 euro (BEZ barne) 186 € + BEZ

B) Prezioa aldiko:

Lehenengo zatia: 2025eko azaroaren 28tik 2025ko abenduaren 19ra

Bigarren zatia: 2025eko abenduaren 20tik 2026ko urtarrilaren 6ra

- Etxola txikia: 1.113,20 euro (BEZ barne) 920 € + BEZ
- Etxola handia: 1.566,95 euro (BEZ barne) 1.295 € + BEZ
- Elikadura-ibilgailuetarako espazioa: 1.566,95 euro (BEZ barne) 1.295 € + BEZ
- Eskuak garbitzeko konketa: 272,25 euro (BEZ barne) 225 € + BEZ

C) Prezioa asteko:

- Elikadura-ibilgailuetarako espazioa: 853,05 euro (BEZ barne) 705 € + BEZ

3.2 Beste baldintza batzuk

Etxola edota elikadura-ibilgailurako espazio bakoitzeko 200,00 euroko fidantza ezarri da, hartan edo hartutako tokian egin daitezkeen eta bertan egongo denaren erruz gerta daitezkeen kalteei aurre egiteko. Fidantza itzultzeko, etxola eta okupatutako espazioa ongi mantendu direla egiaztatuko duen txosten teknikoa beharko da.

Etxoletako, elikadura-ibilgailuetako eta beste elementu batzuetako erakusketariak konpromisoa hartzen dute merkaturatuko den produktua edo produktuak saltzeari buruzko araudian ezarritako betekizun, betebeharrak eta baldintza guztiak betetzeko, bai eta edozein erakusketariri aplikatu dakizkiokeen lan eta zerga betebeharrak guztiak betetzeko ere. Halaber, etxolen eta elikadura-ibilgailuen inguruak ere garbi mantentzeko konpromisoa hartzen dute, hondakinak metatzea ekidinez, batez ere, horien atzealdean.

Gabonetako Azokan erakusketari gisa parte hartzeko, Donostia Sustapenaren eta erakusketariaren (ahaldunak ordezkaturako pertsona fisikoa edo juridikoa) arteko kontratua sinatu beharko da.

Kontratua sinatu aurretik ordainduko da prezio osoa eta, urria hasi aurretik, bankuko transferentzia bidez Donostia Sustapenak adierazitako bankuko kontura. Erakusketariak prezioa Donostia Sustapenak ezarritako epean ordainduko ez balute, edizio honetan Donostiako Gabonetako Azokan parte hartzeko eskubidea galduko lukete.

4. PERTSONA EDO ERAKUNDE ERAKUSKETARIEN BETEKIZUNAK

Etxolen, elikadura-ibilgailuen eta beste elementu batzuetako espazioen alokairuaren pertsona onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.

Ezingo da etxolen, elikadura-ibilgailuen eta beste elementu batzuetarako espazioen alokairua esleitu pertsona fisikoei edo juridikoei, ebazpen irmoz dirulaguntzak edota laguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin zigortuak badaude, edo horretarako ezgaitzen dien legezko debekuren bat badute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretuko 23.2 artikuluan xedatzen denaren arabera sexu-arrazoien ondoriozko diskriminazioagatik zigortuak badaude barne. Era berean, Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean edukitzeko betebeharrarekin, halakorik ez duten enpresei ere ezingo zaie etxolen, elikadura-ibilgailuen eta beste elementu batzuen espazioen alokairua esleitu, ezta Estatuak emakumeen eta gizonen berdintasun arloan legeriaz ezarrita dituen baldintzetan sexu-jazarpena, sexu-arrazoiaren ondoriozko jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitu eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresei ere.

Eskatzaileek, haien erantzukizunpean, eskaintzen dituzten prestazioak egiteko beharrezkoa den enpresa gaitasuna eta profesionala izango dute.

Honako hauek dira Oinarri hauetan arautzen diren alokairuen onuradun diren pertsonen bete beharreko **betekizunak**:

- a) Autonomo/enpresa gisa dagokion erregimenean alta emanda egotea Gabonetako Azokan salmenta-jarduerari ekiteko unean. Eskakizuna egiteko unean alta emanda ez badago, Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emateko konpromisoa azaldu behar du, eta baita hari dagokion Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) ere, Gabonetako Azokan parte hartzen hasi aurretik. Langileak izatekotan, haiek afiliatu eta alta ematea, eta dagozkien lan-betebeharrak eta zerga-betebehar guztiak beteaz.
- b) Donostiako Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin zorrik ez izatea.
- c) Gabonetako Azokan jarduera hasteko unean jarduera garatzeko eska daitezkeen baimen eta lizentzia guztiak izatea.

- d) Kontratua sinatzen den unean gutxienez EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EUROKO (150.000) Erantzukizun Zibileko Asegurua izatea, kontratuaren aldian jarduerak izan ditzakeen erantzukizunak estaltzeko.

5. ESKAERAK, AURKEZPENA ETA EPEA

5.1 Eskaerak eta aurkezpena

Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko dira. Eskaerak modu telematikoa aurkeztuko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.donostiagabonetakoazoka.eus), bertan ezartzen diren eskakizunak betez.

Interesa duen pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da, produktu mota adierazita eta, hala badagokio, interesatzen den etxola kopurua eta okupazioaren aldia ere adierazita. Ezin da bitarteko pertsona fisiko edo juridikorik erabili etxola bat baino gehiago lortzeko.

Gorabeheraren bat sortzen baldin bada, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da eta hark izapidetzeko modua zehaztu ahalko du. Edozein informazio edo kontsulta egiteko deitu 943.482800 telefono-zenbakira edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbidera, erreferentzia modura honakoa adieraziz: Gabonetako Azoka.

Gabonetako Azokan etxolen erakusketari modura izena emateko eskaerarekin **dokumentazio** hau gaineratu beharko da gutxienez:

- Eskaera-eranskina (sinadura elektronikoa eskatzen du)
- Pertsona fisikokoaren kasuan, eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
- Pertsona juridikoaren kasuan, IFZ eta NAN agirian kopia, eta pertsona sinatzailearen ahalak.
- Oraindik eratzeke dagoen enpresa baten kasuan, enpresa eratzeko berariazko borondatea adierazi beharko da (eskaeraren eranskina).

Nahitaezkoa da ebaluatzeko irizpide bakoitzari dagokion informazioa eskaintzea (ikus 8. "Eskakizunen prozedura eta balorazioa" atala) aurkeztutako proposamena hobeto baloratzeko eta puntuazio handiagoa lortzeko.

- Memoria izeneko eranskina, behar bezala beteta. Memoriak informazioa eman beharko du eskaera Oinarri hauetako 8. artikuluan adierazitako balioespen-irizpideen arabera ebaluatu ahal izateko. Informaziorik ez badu, irizpide honen puntuazioa zero puntukoa izango da.
- Argazkiak: Produktuen argazkiak eta etxolan/elikadura-ibilgailuan/beste elementu batzuetan duten kokapenarena, eta barneko dekorazioarena zein langileen jantziarena. Era berean, elikadura-ibilgailuen kasuan, ekitaldian erabiliko den ibilgailu egokituaren argazkiak bidali beharko dira. Argazkiak jpg edo pdf formatuan egongo dira eta ezingo dute 5 Mb baino gehiagoko pisua izan.

- Enpresak zerga helbidea Donostian duela egiaztatzeko edo, gutxienez, Gipuzkoako enpresa izanik establezimendu fisiko bat hirian dutela egiaztatzeko, Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak jaulkitako Ekonomia Jardueren zergaren akreditazio historikoa (altak, bajak, aldaketak, jarduera-epigrafeak).

Pertsona eskatzaileak aukera izango du berariaz ukatzeko Donostia Sustapenak bere datuak kontsulta ditzan, aurkatzearen arrazoiak justifikatuta (Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak helaraziz:

- Ekonomia Jardueren eta historikoaren dokumentu eguneratua, enpresa eskatzailearena, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorria.

Gainera, **Gabonetako ohiko elikagaiak I. multzoaren** hautagaitzen kasuan, zehaztutako aurreko dokumentuez gain, hurrengoak ere aurkeztu behar dira:

- Higiene-osasun arriskuak beregain hartzen dituen “Erantzukizunpeko Adierazpena” dokumentua sinatuta (dokumentua Donostia Sustapenaren eskaera-plataforman deskargatu daiteke).
- Produktu bakoitzaren osasun erregistroa. Osasun erregistroa baliozkoa izan beharko da gure hirian produktua merkaturatzeko Ez da soilik tokiko balioa duen erregistrorik onartuko (eskaera-eranskinean jasotzen da).

Eskaeretan jarduerarako eskatzen diren premia espezifikoen xehetasuneko informazioa jasoko da, erakundeak horien egokitasuna eta bideragarritasuna balioeste aldera.

5.2 Epea

Eskaera aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) **argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2025eko uztailaren 22ra bitartekoa** (24:00 orduetan) **izango da**.

Donostia Sustapenak eskubidea izango du eskakizunak aurkezteko epea luzatzeko eta baita eskakizunen aldi berri bat irekitzeko ere, egindako balioztapenean 65 puntu gainditu ez dituzten erakusketarien kopuru nahikoa ez balego, 8. artikuluan zehaztutako irizpideetan oinarrituta

6. ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA

Eskaera erregistratzeko unean eskaeraren inprimakia atxiki beharko da Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio guztia berrikusi ostean, eskaera osorik beteta ez dagoela egiaztatzen baldin bada, edo dagozkion dokumentuak gaineratu ez baldin badira, pertsona edo erakunde eskatzaileari deia egingo zaio 10 egun balioduneko epean, konpontzeko jakinarazpena egin zaion egunetik zenbatzen hasita gabezia

konpondu edo dagozkion dokumentuak gainera ditzan, hala egingo ez balu, eskaera hori bestelako izapiderik gabe baztertu egingo dela adieraziz, ondorioz, horri buruzko ebazpena emanez.

Donostia Sustapenak komenigarritzat jotzen badu azalpenak eska ditzake.

7. ESKAEREN PROZEDURA, BALIOESPENA ETA HAUTAKETA.

7.1 Prozedura

Etxolen, elikadura-ibilgailuen eta beste elementu batzuen espazioen esleipena norgehiagokako printzipioen arabera egingo da. Etxolen eta elikadura-ibilgailuetarako espazioen ustiapena atal honetan azaltzen diren irizpideekin bat etorritik ebaluazioa egin ostean puntuazio gehien lortzen duten eskaerei esleitu zaie. Puntu gehien lortu duten eskaerekin itxarote-zerrenda bat eratu ahalko da, betiere, Gabonetako Azokan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Produktu-kategoria bakoitzeko erakusketarien portzentaje hau estimatzen da guztizkoaren gainean:

- ❖ I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak:** % 35
- ❖ II. MULTZOA: **Jostailuak eta haurrentzako opariak:** % 10
- ❖ III. MULTZOA: **Artisautza eta Gabonetako opariak:** % 40
- ❖ IV. MULTZOA: **Gabonetako apaingarriak:** % 15

Portzentaje horiek orientatzeko baino ez dute balio. Edozein kasutan, Donostia Sustapenak eskubidea du portzentaje horiek aldatzeko.

7.2 Balorazioa

Etxolen dekorazioa: Aurkeztutako eskeren balorazioan, garrantzia berezia emango zaie etxolen estetikari eta barneko dekorazioari. Aintzatetsiko diren alderdien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- **Etxolen barnealdeko forratua**, kableak eta bestelako elementu teknikoak ezkutuan geratzen direla ziurtatuz, ikus-eremu harmoniatsua bermatzeko.
- **Erakusgai ipinitako produktuak ipintzeko modua**, modu ordenatu eta erakargarrian aurkeztea bultzatuz, Gabonetako izpirituarekin bat etorritik.
- **Etxoletan harrera egiteaz arduratzen diren langileen jantzia**, jaiari dagokion gaiarekin eta azokaren izaera bereizgarriarekin bat datozen jantziak gomendatuz.

Irizpide hauen helburua azokaren izaera abegikorra eta bisualki erakargarria indartzea da, bisitariei Gabonetako garaia dagokion esperientzia barneratzaile eta magikoa eskainiz.

Se aplicará especial atención a la **ESTÉTICA Y DECORACIÓN INTERIOR** de las casetas (forrado del interior ocultando cables y demás elementos técnicos, disposición del producto e indumentaria de las personas que las atiendan)

7.3 Hautaketa

Erakusketarien hautaketa irizpide hauen arabera egingo da, kategoria bakoitzerako:

I. MULTZOA: Gabonetako ohiko elikagaiak:

Ondoren, honako formatu hauetako Gabonetako ohiko elikagaiak baloratzeko irizpideak bereizten dira:

- I.I MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak, etxolak,**
- I.II MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak, elikadura-ibilgailuak.**

I.I MULTZOA: Gabonetako ohiko elikagaiak, etxolak,

Balioespen-irizpideak:	Puntuazioa
Produktuaren erakusketa eta kokapena.	30 puntu
- Barneko estetika eta diseinua, produktua ipintzeko modua: 15 puntu	
- Etxolen forratua: 10 puntu	
- Saltzaileen jantziak: 5 puntu	
Norberak eratutako produktuak	15 puntu
Eskaintzaren kalitatea eta egokitasuna	15 puntu
Tokiko elikagaiak edota hornitzailea	10 puntu
Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak	10 puntu
Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak	10 puntu
EJZ edota establezimendu fisikoa Donostian	5 puntu
Erakusketarien dinamizazio-jarduerak	5 puntu

Balioespen-irizpideen azalpena:

Aurkeztutako proposamena baloratu ahal izateko, argazkiak eta kalitatezko materiala erantsi beharko dira, balioespen-irizpide bakoitzean izandako jardunaren berri izateko.

Eskatzaileei gogorarazten zaie balorazioa aurkeztutako dokumentazioari buruzkoa baino ez dela izango (memoria, argazkiak, fotomuntaiak, produktuen fitxak, dekorazioaren azalpena, etab.).

- **Produktuaren erakusketa eta kokapena: *gehienez 30 puntu.***
 - **Barneko estetika:** saltokiaren barruko apaingarriak, dekoratzeko elementuak nola jarri diren eta Gabonetako Azokarekin koherenteak diren ala ez baloratuko dira. Elementu naturalak erabiltzea eta zura, lastoa, arpillera-ehuna edo landa erako estetika naturalarekin bat datozen elementu birziklagarriak txertatzea oso ongi baloratuko da. Halaber, produktuak salmenta-postuan ipintzeko garaian, salmenta-postuan produktuak ipintzeko kontua, ordena eta xehetasunak baloratuko dira. *gehienez 15 puntu.*
 - **Etxolen forratua:** Uniformetasun kromatikoa proposatzen dugu (gomendatutako kolore-paleta: gorria/berdea, urrekara/zuria) etxola guztiek bisualki harmonia mantendu dezaten. Kableak eta bestelako elementu teknikoak ezkutuan geratzen direla ziurtatzea, ikus-eremu harmoniatsua bermatuz. Gabonetako izpiritua indartzeko argi beroak edo apaingarriak erabiltzea iradokitzen da. Argi dirdiratsuak edo girlanda argitsuak aukera paregabeak izan daitezke. *gehienez 10 puntu.*
 - **Saltzaileen jantziak:** Etxola artatzen duten pertsonen Gabonetako jantziak erabiltzea baloratuko da, arropa zaindua eta salmentan den produktuarekin lotutakoa erabiliz. *gehienez 5 puntu.*
- **Norberak eratutako produktuak:** erakusketariak berak egindako produktuen eskaintza balioetsiko da. *gehienez 15 puntu.*
- **Eskaintzaren kalitatea eta egokitasuna:** salmentan dauden produktuen aniztasuna eta egokitasuna baloratuko dira. *gehienez 15 puntu.*
- **Tokiko elikagaiak edota hornitzailea:** eskainitako produktuen jatorria baloratuko da, hurbileko produktuak: Donostia-Donostialdea. *gehienez 10 puntu.*
- **Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak:** produktu ekologikoen eta intolerantziei egokitutakoen eskaintza baloratuko da. *gehienez 10 puntu.*
- **Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoak eta ez kutsatzaileak erabiltzea baloratuko da. *gehienez 10 puntu.*
- **EJZ edota establezimendu fisikoa Donostian:** jardueraren EJZ Donostiako hirian izatea edota eskatzaileak Donostiako hirian saltoki fisikoa izatea baloratuko da. *gehienez 5 puntu.*
- **Postuaren edo azokaren dinamizaziorako jarduerak egitea:** eskatzaileak bere postuan edo Donostiako Gabonetako Azokan egiteko dinamizazio-jarduera zehatzak eta egingarriak proposatzea baloratuko da. *gehienez 5 puntu.*

Azken puntu horren barruan jarduerak aurkeztu eta, horregatik, puntu gehien lortzen dituzten eskatzaileek Gabonetako kanpainan horiek egitera derrigortuta daude.

I.II MULTZOA: Gabonetako ohiko elikagaiak, elikadura-ibilgailuak.

Balioespen-irizpideak:	Puntuazioa
Produktuaren estetika eta erakusketa	30 puntu
- Barneko estetika eta diseinua, produktua ipintzeko modua: 12 puntu	
- Elikadura-ibilgailuaren kanpoaldeko estetika: 13 puntu	
- Saltzaileen jantziak: 5 puntu	
Norberak eratutako produktuak	15 puntu
Eskaintzaren kalitatea eta egokitasuna	15 puntu
Tokiko elikagaiak edota hornitzailea	10 puntu
Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak	10 puntu
Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak	10 puntu
EJZ edota establezimendu fisikoa Donostian	5 puntu
Erakusketarien dinamizazio-jarduerak	5 puntu

Balioespen-irizpideen azalpena:

Aurkeztutako proposamena baloratu ahal izateko, argazkiak eta kalitatezko materiala erantsi beharko dira, balioespen-irizpide bakoitzean izandako jardunaren berri izateko.

Eskatzaileei gogorarazten zaie balorazioa aurkeztutako dokumentazioari buruzkoa baino ez dela izango (memoria, argazkiak, fotomuntaiak, produktuen fitxak, dekorazioaren azalpena, etab.).

- **Produktuaren estetika eta erakusketa: *gehienez 30 puntu.***
 - **Barneko estetika:** saltokiaren barruko apaingarriak, dekoratzeko elementuak nola jarri diren eta Gabonetako Azokarekin koherenteak diren ala ez baloratuko dira. ***gehienez 12 puntu.***
 - **Kanpoaldeko estetika:** elikadura-ibilgailua, salmenta-puntu modura, nola zainduta dagoen, bere irudia eta xehetasuna baloratuko dira. ***gehienez 13 puntu.***
 - **Saltzaileen jantzia:** Etxola artatzen duten pertsonen Gabonetako jantziak erabiltzea baloratuko da, arropa zaindua eta salmentan den produktuarekin lotutakoa erabiliz. ***gehienez 5 puntu.***

- **Norberak eratutako produktuak:** erakusketariak berak egindako produktuen eskaintza balioetsiko da. **gehienez 15 puntu.**
- **Eskaintzaren kalitatea eta egokitasuna:** salmentan dauden produktuen aniztasuna eta egokitasuna baloratuko dira. **gehienez 15 puntu.**
- **Tokiko elikagaiak edota hornitzailea:** eskainitako produktuen jatorria baloratuko da, hurbileko produktuak: Donostia-Donostialdea. **gehienez 10 puntu.**
- **Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak:** produktu ekologikoen eta intolerantziei egokitutakoen eskaintza baloratuko da. **gehienez 10 puntu.**
- **Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoak eta ez kutsatzaileak erabiltzea baloratuko da. **gehienez 10 puntu.**
- **EJZ edota establezimendu fisikoa Donostian:** jardueraren EJZ Donostiako hirian izatea edota eskatzaileak Donostiako hirian saltoki fisikoa izatea baloratuko da. **gehienez 5 puntu.**
- **Postuaren edo azokaren dinamizaziorako jarduerak egitea:** eskatzaileak bere postuan edo Donostiako Gabonetako Azokan egiteko dinamizazio-jarduera zehatzak eta egingarriak proposatzea baloratuko da. **gehienez 5 puntu.**

Azken puntu horren barruan jarduerak aurkeztu eta, horregatik, puntu gehien lortzen dituzten eskatzaileek Gabonetako kanpainan horiek egitera derrigortuta daude.

II., III. eta IV MULTZOAK: Jostailuak eta haurrentzako opariak; Artisautza eta opariak; eta Gabonetako apainketa:

Balioespen-irizpideak:	Puntuazioa
Produktuaren kalitatea eta originaltasuna.	30 puntu
Produktuaren erakusketa eta kokapena.	30 puntu
- Barneko estetika, produktua ipintzeko modua: 15 puntu	
- Etxolen forratua: 10 puntu	
- Saltzaileen jantzia: 5 puntu	
Gabonetako izaera	20 puntu
Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak	10 puntu
EJZ edota establezimendu fisikoa Donostian	5 puntu
Erakusketarien dinamizazio-jarduerak	5 puntu

Balioespen-irizpideen azalpena:

Aurkeztutako proposamena baloratu ahal izateko, argazkiak eta kalitatezko materiala erantsi beharko dira, balioespen-irizpide bakoitzean izandako jardunaren berri izateko.

Eskatzaileei gogorarazten zaie balorazioa aurkeztutako dokumentazioari buruzkoa baino ez dela izango (memoria, argazkiak, fotomuntaiak, produktuen fitxak, dekorazioaren azalpena, etab.).

- **Produktuaren kalitatea eta originaltasuna:** produktuen kalitatea beren diseinua, kalitatea eta materialak kontuan izanik balioetsiko dira. *Gehienez 30 puntu.*
- **Produktuaren erakusketa eta kokapena: *gehienez 30 puntu.***
 - **Barneko estetika:** saltokiaren barruko apaingarriak, dekoratzeko elementuak nola jarri diren eta Gabonetako Azokarekin koherenteak diren ala ez baloratuko dira. Elementu naturalak erabiltzea eta zura, lastoa, arpillera-ehuna edo landa erako estetika naturalarekin bat datozen elementu birziklagarriak txertatzea oso ongi baloratuko da. Halaber, produktuak salmenta-postuan ipintzeko garaian, salmenta-postuan produktuak ipintzeko kontua, ordena eta xehetasunak baloratuko dira. *gehienez 15 puntu.*
 - **Etxolen forratua:** Uniformetasun kromatikoa proposatzen dugu (gomendatutako kolore-paleta: Gorria, berdea, urrekara, zuria) etxola guztiek bisualki harmonia mantendu dezaten. Kableak eta bestelako elementu teknikoak ezkutuan geratzen direla ziurtatzea, ikus-eremu harmoniatsua bermatuz. Gabonetako izpiritua indartzeko argi beroak edo apaingarriak erabiltzea iradokitzen da. Argi dirdiratsuak edo girlanda argitsuak aukera paregabeak izan daitezke. *gehienez 10 puntu.*
 - **Saltzaileen jantzia:** Etxola artatzen duten pertsonen Gabonetako jantziak erabiltzea baloratuko da, arropa zaindua eta salmentan den produktuarekin lotutakoa erabiliz. *gehienez 5 puntu.*
- **Gabonetako izaera:** Gabonetan ohikotasunez kontsumitzen diren produktuen eskaintza balioetsiko da. *gehienez 20 puntu.*
- **EJZ edota establezimendu fisikoa Donostian:** jardueraren EJZ Donostiako hirian izatea edota eskatzaileak Donostiako hirian saltoki fisikoa izatea baloratuko da. *gehienez 5 puntu.*
- **Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoak eta ez kutsatzaileak erabiltzea baloratuko da. *gehienez 10 puntu.*
- **Postuaren edo azokaren dinamizaziorako jarduerak egitea:** eskatzaileak bere postuan edo Azokan horretarako prestatutako eremuan egiteko dinamizazio-jarduera zehatzak proposatzea baloratuko da. *gehienez 5 puntu.*

Azken puntu horren barruan jarduerak aurkeztu eta, horregatik, puntu gehien lortzen dituzten eskatzaileek Gabonetako kanpainan horiek egitera derrigortuta daude.

Jasotako eskakizunak gehienez 100 punturekin ebaluatuko dira, eta **gutxienez 65 puntu lortu beharko dituzte**. Gutxienez 65 puntu horietara iristen ez diren eskakizunak baztertu egingo dira, eta ezingo dira hautatuak izan, ezta itxaron zerrendan utzi ere.

Eskaeren kopurua salmenta-jarduera egiteko eskuragarri dauden postuen kopurua baino handiagoa bada, postuak korrelatiboki esleitu dira, talde bakoitzak Gabonetako Azokako erakusketarien guztizkoaren gainean duen partaidetza-ehunekoa kontuan hartuta eta aurretik aipatutako irizpideen arabera lortutako puntuazioaren arabera, eta berdinketarik egonez gero, sarrera-erregistroaren arabera. Ordezkoen zerrenda bat eratuko da posturik gabe geratu diren erakusketariekin, betiere Azokan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte eta eskatutako 65 puntuak gainditu badituzte.

Etxola erabiltzearen esleipena eman den ala ukatu den, www.donostiagabonetakoazoka.eus webgunean argitaratuko da, Donostia Sustapenak berariaz argitaratutako ebazpen bitartez **2025eko irailaren 19a baino lehen**. Edozein kasutan ere, Donostia Sustapenak eskubidea du epe hori luzatzeko.

Hautatutako pertsonen edo erakundeek, onespenez ebazpena jasoko dute Gabonetako Azokan parte hartzeko kontratuarekin batera, eta ebazpen-egunetik zenbatzen hasita, beranduenez, 10 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dute hurrengo dokumentazioa:

- Kontratu sinatua.
- Fidantzaren eta etxolaren alokairuaren zenbateko osoaren ordainagiriaren kopia (estra guztiak barne, baleude).
- Gipuzkoako pertsona edo enpresen kasuan, Donostia Sustapenak zuzenean jasoko du Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren historiaren (altak, bajak, aldaketak, jarduera-epigrafeak) egiaztagiria, Gipuzkoako Foru Ogasunak igorria.
- Pertsona eskatzaileak aukera izango du berariaz ukatzeko Donostia Sustapenak datu horiek kontsulta ditzan, aurkatzearen arrazoiak justifikatuta (Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak helaraziz:
 - Ekonomia Jardueren eta historikoaren dokumentu eguneratua, enpresa eskatzailearena, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorria.
- Gipuzkoan alta emanda ez dauden enpresek Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) altan egotearen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
-] Erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiria ordaindu izanaren kopia, egindako jardueraren ondoriozko balizko erreklamazioak estaltzen dituen, baimendutako eperako

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda ez dauden erakusketariekin, Gabonetako Azokak irauten duen aldiaren erantzukizun zibileko **asegururik** ez badute, beranduenez azoka hasi aurreko 2 asteko epean egin beharko dute, hau da, **azaroaren 10etik 21era**, eta behar bezala justifikatu beharko dute.

produktuen ondoriozko erantzukizuna barne, gutxienez 150.000 euroko kalte-ordainarekin.

Aurrekoaren kalterik gabe, Donostia Sustapenak aukera izango du eskatzaileari beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio edo dokumentazio gehigarri eskatzeko, helarazitako datuak egiaztatze aldera.

Dokumentazioa aurkezteko epeak betetzen ez badira, eskaera bertan behera geratzen dela ulertuko da, baldin eta Sustapenak epea luzatzea onartzen ez badu, aldez aurretik arrazoi justifikatuekin interesdunak eskaera bideratu ostean.

8. ERAKUSKETARIEN BETEBEHARRAK

1. Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko betebeharrak egunean izatea, eta kasu bakoitzean eskatzen den lan-araudia betetzea.
2. Donostia Sustapenak Gabonetako Azokan etxola bat edo elikadura-ibilgailurako espazio bat hartzeko ezarritako zenbatekoa horretarako adostutako epeekin bat etorriz ordaintzea.
3. Esleitutako instalazioa eskaeran adierazitako xederako erabiltzea soilik.
4. Hirugarrenei salmentarako baimenak ez laga, saldu edo berrakuratzea, horien izaera pertsonal eta besterenezina kontuan izanik.
5. Edozein unetan onartutako baimena eta baimenaren titularren nortasuna egiaztatzeko dokumentazioa erakustea, ikuskapeneko udal langileek edota segurtasun agenteek hala eskatuz gero.
6. Behin etxola edo elikadura-ibilgailuetarako espazioa ustiatzeko baimena onartuta, hala eskatzen baldin bada, titularrak aseguru konpainiaren ziurtagiri originala aurkeztu beharko du, garatutako jardueratik eratorritako balizko erreklamazioak estaltzeko indarreko erantzukizun zibileko asegurua poliza dagoela egiaztatzeko, hala badagokio, baimendutako epealdirako produktuetatik edo elikagaien intoxikaziotik eratorritako erantzukizuna barne.
7. Donostia Sustapenak Gabonetako Azokan parte hartzeko ezarritako ordutegia, egutegia eta kokalekua betetzea. Etxola bertan saltzeko baino ez da ematen. Hiriko gainerako lekuetan, debekatuta dago kaleko salmenta, aldez aurretik baimenik izan gabe.
8. Pertsona edo erakunde esleipenduna Gabonetako Azokara bertaratzen ez bada aurrez ohartarazi gabe edo arrazoi justifikaturik azaldu gabe, Donostia Sustapenak eskubidea izango du pertsona edo erakunde hori hurrengo edizioan ez onartzeko.
9. Pertsona edo erakunde esleipendunek bezeroen eskura izan beharko dituzte dagozkien erreklamazio-orriak.
10. Produktuekin lotuta erakusgai ipintzen diren kartel guztiak euskaraz nahiz gaztelaniaz izatea.

11. Standaren kanpoan ez da baimenduko inolako publizitate, propaganda edota kartelak ipintzea, salmentarako postuetan megafonia indibiduala debekatuta dagoelarik.
12. Galarazita dago etxolaren egituraren iltzeak ipintzea edo edozelako kalteak eragitea. Ezingo dira etxolaren egituraren berau aldatzea dakarten elementurik erantsi (olanak, mahaia, bankuak, etab.).
13. Zoladura kalte dezaketen ainguratzeak ez daude baimenduta.
14. Instalazioak, emandako azalera eta inguruneak egoera bikainean mantentzea garbiketari, apaindurari, osasunari, segurtasunari eta higieneari dagokienez, hala okupazio-ordutegian nola hura amaitzean. Parte-hartzaileen ardura izango da zorua eta 10 metroko eragin-eremua txukun edukitzea, postuaren muga guztietatik hasita, Donostia Sustapenak etxoletan saldutako produktuak kontsumitzeko erabilgarri jarritako altzariak barne.
15. Postuan pertsonalki harrera egiten duen pertsonen kasu bakoitzean aplikagarri diren elikadurari higie- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte.
16. Elikagaiak manipulatzeko erakusketarien kasuan, osasun, ingurumen eta segurtasun agintariak ezarritako arau eta protokolo guztiak zorrotasunez bete beharko dituzte, eta etorkizunean ager daitezkeenetara egokitu beharko dira, bai lanari lotutako eragiketetan, bai kontsumo-eremuetan.
17. Etxolek ezingo dute eduki sukaldetik, hozkailurik, berogailurik, estufarik, argiztatzeko elementurik edo berariaz baimendutako hornidura elektrikoa baino gehiago kontsumitzen duen beste gailurik izango eta, edozein kasutan, ezingo da erabili G.L.P motako gas erregairik (butanoa, propanoa, etab.), ez postuen barruan ez inguruan.
18. Ezingo dira erabili sorgailurik, Donostia Sustapenaren berariazko baimenarekin izan ezean.
19. Salmenta-jarduna burutzeko emandako etxola edo elikadura-ibilgailurako zehaztutako espazioa baino gehiago ezingo da erabili, ez delarik inolaz ere onartzen salgaiak erakusgai ipintzeko aurrealdeko edo alboetako pasabideak erabiltzea. Norberaren postuan egotea, produktuak eskainik batetik bestera ibili gabe.
20. Postutik kanpo ezingo da jakirik prestatu, usaiak hedatzea ekiditeko.
21. Edariak saltzen dituzten erakusketariak edalontzi berrerabilgarriak edota konpostagarriak erabili beharko dituzte ezinbestean. Ezingo da kristalezko edalontzirik erabili. Beira erabiliz gero, dagozkion edukiontzietara bota beharko da. Paperezko poltsak erabiltzea eta plastikoa ekiditea gomendatzen da. Oro har, Gabonetako Azokako erakusketari guztiek jarduera garatzen duten bitartean sortutako hondakinak kudeatu eta horretarako ipinitako edukiontzietara bota beharko dituzte.
22. Ontziratutako olioak erabiliko da soilik.
23. Zorura isurketa oro saihestuko da (olioa, koipea edo bestelakoa).
24. Halaber, ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen edukia eta Mendekotasunen eta Droga-mendekotasunen Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016

Legea errespetatu beharko dira. Guztiz debekatuta dago 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea. Postuaren barruan edariak zerbitzatuko dituzten guztiek 18 urte edo gehiago izan behar dituzte.

25. Behin okupazioa altxatzen denean, bide publikoa libre eta okupatu aurretik zegoen baldintzetan geratu beharko da, eta ezingo da alegatu espazioa okupatzean adierazi gabeko kalterik dagoenik.
26. Sustapenak Gabonetako Azokaren jardura behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu ahalko ditu, Oinarri hauek zorroztasunez bete eta errespetatzen direla zainduz, eta horiek interpretatzeko eskubidean lehentasuna izango du.

Elikadura-ibilgailuen kasuan, gainera, derrigorrez betetzeko baldintza hauek ezartzen dira:

1. Elikadura-ibilgailu bakoitzak terrazako altzariak instalatu ahal izango ditu, Donostia Sustapenarekin egokitasunaren inguruko adostasuna lortu ondoren, eta elikadura-ibilgailu bakoitza eguneroko garbiketaz eta mantenu-lanez arduratuko da.
2. Funtzionamenduan autonomoak izango dira, elektrizitateari edota ur-hartuneei dagokienez.
3. Barnean su-itxalgailua izan beharko dute derrigorrez.
4. Partzela baldintza bikainean mantendu beharko dute garbiketari dagokionez, eta zaborrak instalatutako edukiontzietara bota beharko dute.
5. Ezingo dute berezko megafoniarik erabili.

OSO GARRANTZITSUA: Ostalaritza-etxolak, elikadura-ibilgailuak eta beste elementu batzuk baterako espazioak garbitzeaz arduratu beharko dira:

Gabonetako Azokan dabilzan pertsona guztientzat erosotasuna, higiena eta esperientzia atsegina bermatze aldera, janari eta edarien etxoletako, elikadura-ibilgailuetako, zein beste elementu batzuetako arduradunek antolaketak horien bezeroek erabili eta gozatzeko ipinitako espazioak garbitu eta mantentzeaz arduratuko dira.

Baterako mahai eta eremuak: Ostalaritzako etxoletako eta elikadura-ibilgailuetako arduradunen betebeharra izango da salmenta-puntuaren inguruan ipinitako mahaia keta gaitutako eremuak garbiketari dagokionez baldintza bikainetan mantentzea. Hor sartzen da:

- Janarien hondarrak, ontziak eta bezeroak erabili ondoren bertan gera daitekeen beste edozein hondakin jasotzea.
- Mahaiak eta aulkiak txukun eta erabiltzeko baldintzetan daudela ziurtatzea.
- Hondakinen koordinazioa:

- Arduradunek maiztasunez hustu beharko dituzte beren eremuetan ipinitako paperontziak, eta arrastoak antolakuntzak adierazitako bilketa-puntuetara eraman beharko dituzte.
- Material birziklagarrien erabilera eta hondakinak behar bezala bereiztea sustatuko da, ekitaldiaren ingurumen arloko politikekin bat etorritik.

Ikuskapenak eta betetzea: Antolakuntzak aldizkako ikuskapenak egin ahal izango ditu arau hauek betetzen direla egiaztatzeko. Mantenua ez dela egokia ikusten bada, neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira, esate baterako, ohartarazpenak edo, azkenik, aldeztu aurretik adostutako zehapenak.

Bezereen ongizatearekiko konpromisoa: Ingurunea garbi eta txukun mantentzeak ekitaldiaren izpiritua erakustez gain, lagundu egiten du bertaratzen direnek esperientzia positiboa izan dezaten, bere leialtasuna eta gogobetetasuna bultzatuz.

Erantzukizun horrekin bat egitean, etxolek eta elikadura-ibilgailuek azokako araudia betetzeaz gain, kalitatearekin eta bisitarien ongizatearekin duten konpromisoa erakutsiko dute.

9. KONTRATUA ETETEA.

Kontratua eteteko arrazoiak izan daitezke, jarraian zehazten direnak, besteak beste:

- Pertsona titularren ukoa. Uko egite horrek 600,00 euroko zigorra eragingo du, kontratua sinatu ondoren eta Azoka hasi aurretik egiten bada. Uko-egitea ezinbesteko arrazoiaren ondoriozkoa dela egiaz frogatzen den kasuetan ez da zigorrik aplikatuko.
- Pertsona titularren heriotza.
- Baimena eskuratu eta mantentzeko eskatzen diren betekizun guztiak edo batzuk galtzea. 600,00 euroko zigorra eragingo du, Donostia Sustapenak baldintza horiek urratzeagatik eskatu ditzaken kalte-ordainekin batera.
- Oinarri hauetan eta kontratuan bertan ezarritako baldintzak ez betetzea. 600,00 euroko zigorra eragingo du, Donostia Sustapenak baldintza horiek urratzeagatik eskatu ditzaken kalte-ordainekin batera.
- Gabonetako Azoka bertan behera geratzea ezinbesteko arrazoiak direla eta (herritarren segurtasuna eta interes publiko arrazoitua), Donostia Sustapenak erakusketariei inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik ordaindu beharrik gabe.

Azoka inauguraziorako aurreikusitako egunaren aurretik bertan behera geratuz gero, Donostia Sustapenak erakusketari bakoitzak ordaindutako kopuruaren % 100 itzuliko du. Halaber, behin Azoka hasita bertan behera geratzen bada, Donostia Sustapen azokarik gabeko egunen zati proportzionala itzuliko du.

10. DATUEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudian ezartzen denaren arabera, helarazten dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela jakinarazten da, Tratamenduaren arduradun modura jardungo duena, Donostia Sustapena S.A. sozietateak kudeatutako informazioa izanik tratamenduaren arduradun izaeran. Tratamenduaren helburua Donostiako Gabonetako Azokan zure partaidetza izapidetu eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasuna DBEO erregelamenduko 6.1.e) artikuluan oinarritzen da: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

Ez dago aurreikusita hirugarrenei datuak jakinaraztea, legeak hala agintzen ez badu edo kanpoko hornitzaileek euskarri teknikoak emateko behar-beharrezkoa ez bada. Ez da datuen nazioarteko transferentziarik aurreikusten. Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeke eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa

Eragindako pertsonak datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006, Donostia). Eskubideak erabiltzean behar bezala artatua izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, aldeztu aurretik eta hautaz, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango da: dbo@donostia.eus.

11. AZKEN XEDAPENA.

Oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bertan argitaratzen den egunean bertan sartuko dira indarrean. Interesdunak eskaera aurkezteak berekin dakar Oinarri hauek

osorik onartzea eta pertsona edo erakunde eskatzailearen aldetik Gabonetako azokaren arau espezifikoak eta azoka behar bezala gara dadin Antolakuntzak ezarritako xedapen zehatzak onartu eta ontzat hartzearen konpromiso ukaezina sortzen du.

Pertsona/enpresa eskatzailea izango da aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren erantzule bakarra, eta baita esku-hartzeen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztiena ere, are, baita jardueraren aurretik eta ondoren burututakoena, Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuz.

Donostia, datan adierazten den egunez

Iñigo Olaizola Arcaute

Donostia Sustapena S.A. Sozietateko Zuzendari Gerentea

I. ERANSKINA: ETXOLEN XEHETASUN TEKNIKOAK

1. Kiosko Modeloa (etxola txikia): 6 m². Dimentsioak: 3 x 2 m. Altuera alboetan (barnealdean) 205 cm. Altuera erdian (barnealdean) 270 cm.

2. Kiosko Modeloa (etxola handia): 8 m². Dimentsioak: 4 x 2 m. Altuera alboetan (barnealdean) 205 cm. Altuera erdian (barnealdean) 290 cm.

Bi modeloek dituzte:

- Atzealdean ate 1, egur trinkoz, sarrailez hornituta.
- Aurrealdean irekigune 1, barraz eta kontraleiho baskulatzailaz hornituta bezeroei harrera egiteko, 800 N-ko sistema hidraulikoz eta sarrailez.
- Alboetan 2 irekigune, barraz eta kontraleiho baskulatzailaz hornituta bezeroei harrera egiteko, 600 N-ko sistema hidraulikoz eta sarrailez.

Eguraldi txarra dagoenean etxolen prestazioa hobetzeko, aurrealdeko mostradorea kentzeko aukera dago, parte-hartzaile bakoitzak nahieran.

Bi modeloetan barnealdea espazio bakarrak osatzen du, akabera hauekin:

- 22 mm-ko ocume zurezko zoladura.
- Ocume zurezko oholez babestutako sabaia.
- Lasur erako bernizeko akabera.

Funtzionamendua egokia izan dadin instalazio elektriko batekin dago hornitua, aginte eta babes koadro batez, fluoreszente batekin eratutako argiztapen-puntu batez eta 16A-ko hiru entxufez osatua.

II. ERANSKINA: ETXOLEN KONSTUAREN BANAKATZE EKONOMIKOA

Jarraian, etxola bakoitzaren kostuen xehetasuna ematen da:

SARREREN ETA GASTUEN ZERRENDIA ERAKUSKETARI BAKOITZEKO (BEZ barne)		
	ETXOLA (3X2 m)	ETXOLA (4X2 m)
ERAKUSKETARI BAKOITZAK ORDAINTZEKO ZENBATEKOA (epealdi osoa)	1.863,40 €	2.776,95 €
SUSTAPENERAKO ZUZENEKO KOSTUAK ERAKUSKETARI BAKOITZEKO: - salmenta-azpiegitura - instalazio elektrikoa eta argiaren gastua - segurtasun-zerbitzua - Azokan erakusketariei laguntza emateko zerbitzua - komun-zerbitzua - soinu-zerbitzua	4.494 €	4.780 €

Oharrak: Zuzeneko kostuetan ez da sartzen Sustapenak egiten dituen gastuen zerrenda hau: komunikazioa, garbiketa, zuzendaritza tekniko eta mantentze-lanak, aisialdiko agenda, Azokako gainerako ekipamendu eta azpiegiturak, seinaleak, etab.